

## NEKAZARITZA BATZORDEAREN AKTA

EGUNA: 2012-06-14

LEKUA: Udaleko batzar gelan.

HASMENTA ORDUA: 15:00

BUKAERA ORDUA: 16:00

### BERTARATUAK:

- Itsaso Aleman
- Luis Jabier Lournagarai
- Jon Elizetxe
- Juan Migel Agirre
- Jokin Ramirez

### GAIAK:

- Luberriak/ordenantzak
- Hiltegiaren inguruko foroa
- Galde-eskeak

#### Luberriak/ordenantzak

Gai honen inguruan, jakinda (ustez) oraindik ere badaudela luberri batzuk errentan ematen direnak, aintzineko batzordeetan bakoitzak dauzkan luberrien eta propiedadeko lurren zerrenda egitea proposatu zen. Ikusita guzi hau lan-zama handia izango zela, bertez neurri batzuk hartzea adostu da.

Lehenik eta behin, Baztanen luberri bat daukaten guziei gutun bat bialtzea proposatzen da, bertan ondoko honen berri emango zaielarik:

- Ordenantzek luberriak errentan emateari buruz diotena.
- Izan daitezkeen isunak.
- Jakinaraztea gutun hau bidali ondotik, Baztango mendizainak luberri desberdinetan dauden aziendak identifikatzen hasiko direla.
- Batzar nagusiak luberrien aprobetxamendua kendu ahal diela luberriak errentan ematen dituztenei.

#### Hiltegiaren inguruko foroa

Azken hilabete hauetan, hainbat lan desberdin egin dira Loizuko hiltegian animalien ongizate eta osasun legediek diotena betetzearren. Behin hiltegia behar den bezala martxan egonda, hemendik aintzineran eman nahi diogun erabilera eta kudeaketa mota adostea da ondoko erronka. Bertzalde, despieze gela bat egitearen beharra eztabaidatu beharra ere mahai gainean dago. Hau horrela izanik, hiltegiaren inguruan eztabaidatzeko foro bat osatzea planteatu da.

Foro hau Abuztuaren 8an, atsaldeko 8etan, egitea palnteatu da eta bertan ondokoek egon beharko lukete:

Harakinen ordezkariaren bat.

- Tratanteak.
- Nekazariak.
- Nekazal sindikatuak.
- Udal ordezkariak.
- Hiltegiko langileak.

Bertzalde, eta jendea jakinaren gainean egoteko, komunikabideei foro honen berri ematea proposatu zen.

Galde-eskeak

Azienda hiltzeko eta puskatzeko ikastaro bat egitea planteatu da eta EHNE sindikatutik horrelako zerbait bideratu daitekeela jakinarazi da.

## **ACTA DE LA COMISIÓN DE GANADERÍA**

DIA: 14/06/2012

LUGAR: Sala de plenos del ayuntamiento de Baztan

HORA DE INICIO: 15:00

ASISTENTES:

- Itsaso Aleman
- Luis Jabier Larnagarai
- Jon Elizetxe
- Juan Miguel Aguirre
- Jokin Ramirez

TEMAS:

Roturaciones / ordenanzas

Foro sobre el matadero

Ruegos y preguntas

### **Roturaciones / ordenanzas**

Sobre este tema, sabiendo (se cree) que todavía hay algunas roturaciones que se alquilan, en la comisión anterior se decidió hacer un listado de las roturaciones y parcelas en propiedad de cada uno. Como esto supone un gran volumen de trabajo se acuerda tomar otras medidas.

Se propone primero enviar una carta a todos los que tienen roturaciones, para comunicarles:

- Lo que las ordenanzas dicen sobre el alquiler de roturaciones.
- Las posibles multas.

- Comunicar que una vez enviadas las cartas, los guardas de Baztan empezarán a identificar el ganado que padece en las roturaciones.
- La Junta General puede quitar el aprovechamiento a quienes alquilen roturaciones.

#### Foro sobre el matadero

En los últimos meses se han acometido diferentes trabajos para cumplir la normativa de bienestar animal. Una vez que el matadero esté funcionando debidamente, el siguiente paso será determinar el uso que se le quiere dar en adelante y el modo de gestión. Además está pendiente debatir la necesidad de poner una sala de despiece. Por todo esto se plantea crear un foro para debatir sobre el matadero.

Se propone celebrarlo el 8 de agosto a las 20:00 y tendrían que asistir:

- Un representante de los carniceros.
- Tratantes
- Ganaderos
- Sindicatos ganaderos
- Representantes municipales
- Trabajadores del matadero

Por otro lado y para conocimiento general, se propuso dar aviso del foro a los medios.

Ruegos y preguntas:

Se ha sugerido realizar un cursillo de sacrificio y despiece de animales y se ha avisado a EHNE de que se podría poner en marcha algo así.

HORA FINALIZACION: 16:00